

DERMO


Hizotzgailu eramangarria

Kanalak

Osakidetza

Osakidetza hozkailua **banatzeko kanal nagusietako** bat izango litzateke, **hotzean kontserbatu** behar diren sendagaiak garraiatu behar dituzten pertsonekin harreman zuzena dutelako. **Osasun-profesionalen bitartez**, erakunde hori arduratuko litzateke kasu bakoitza **banaka baloratzeaz**, pazientearen beharrak eta jarraitzen duen tratamendu mota kontuan hartuta.

Balorazio horren arabera, Osakidetzak produktua eman diezaieke benetan behar duten erabiltzaileei, bai ohiko bidaietarako, bai unean uneko joan-etorrietarako. Horrela, gailua pertsona ego-kiengana iritsiko dela bermatzen da, haien **bizi-kalitatea hobetuz eta segurtasunez tratatzen** lagunduz. Gainera, osasun-kanal publikoa denez, **konfiantza eta lasaitasuna transmititzen die erabiltzaileei**, badakitelako produktuak dagokion osasun-babesa duela.



Farmaziak

Farmaziak **beste bide garrantzitsu** bat izango lirateke produktu hori erabiltzaileen eskura jartzeko, batez ere hozkailu eramangarria aldi baterako edo noizean behin behar dutenentzat. Kasu horretan, **gailua alokairuan egongo litzateke**, eta, beraz, **erosketa bat egin beharrik gabe eskuratu ahal izango litzateke**.

Farmaziak arduratuko lirateke **alokairua kudeatzeaz eta erabilera bakoitzaren aurretik eta ondoren produktua egoera onean dagoela ziurtatzeaz**, behar bezala funtzionatzen duela bermatuz. Erabiltzeko, **erabiltzaileak adostutako kopuru bat ordaindu beharko luke**, gailuaren alokairua eta mantentze-lanak estaltzeko. Kanal hori bereziki eroso da, farmaziak gertuko eta ohiko tokiak baitira pazienteentzat, produktua azkar eta erraz eskuratzeko aukera ematen baitute.

